



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

CODEX ALIMENTARIUS

Sarrera

Codex Alimentarius Batzordea (CAC) Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak (FAO) eta Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) ezarri zuten, kontsumitzaileen osasuna babesteko eta elikagaien merkataritzan praktika zintzoak bermatzeko. Batzordea 1963. urtean bildu zen lehenengo aldiz. Codex-a FAOk eta OMEk finantzatzen dute, eta guztira 180 estatu kide ditu, baita erakunde kide bat ere, Europako Erkidegoa, alegia.

Codex Alimentarius delakoa ("elikagaien kodea" adierazten duen latinezko esamoldea) Batzordearen eta lantalde teknikoen (gutxi gorabehera 20) lanaren emaitza da: elikagaien arloan nazioartean hitzartutako arauen, jarraibideen eta kodeen bilduma.

*Codex Alimentarius*ak kontsumitzaileen osasuna babesteko duen garrantzia Nazio Batuen 39/248 Ebazpenak, 1985ekoak, nabarmendu zuen. Bertan, jarraibideak zehaztu ziren kontsumitzaileak babesteko politikak egin eta indartze aldera. Jarraibideetan gomendatzen da, elikagaiei buruzko politika eta plan nazionalak egitean, gobernuek aintzat hartu behar dutela kontsumitzaileentzat ezinbestekoa dela elikadura-segurtasuna. Bestalde, gomendatzen da ezartzea, ahal den neurrian, *Codex Alimentariusean* jasotako neurriak edo, halakorik ezin denean, elikadurari buruz nazioartean oro har onartzen diren beste arau batzuk.

Kideak

Batzordeko kide izan daitezke elikadurari buruzko nazioarteko arauetan interesa duten estatu kide guztiak eta FAOko eta OMEko kide elkartuak. Integrazio ekonomikorako eskualde mailako erakundeak ere Batzordeko kide izan daitezke, baldin eta FAO eta OMEko kide badira, eta horien kasuan arau bereziak aplikatuko dira.

Estatu behatzaileak

Batzordeko kide ez diren estatu kideek edo FAOko zein OMEko kide elkartu guztiek eskubidea izango dute, aldez aurretik eskaera eginda, Batzordeen eta Batzordeen organo lagungarrien bilkuretara zein bilkura berezietara behatzaile gisa joateko. Nazio Batuetako estatu kideak gonbidatu daitezke, hala eskatzen badute, Batzordearen bilkuretara behatzaile gisa joatera, nahiz eta estatu kide edo FAOko edo OMEko kide elkartu izan ez. Gonbidapena eskatzeko estatu interesdunek *Codex*aren idazkaritzara idatzi beharko dute, gutxienez, bilkura hasi baino hilabete lehenago.

Erakunde begiraleak

Nazio Batuetako beste organismo batzuetako, gobernu-arteko zein gobernuz kanpoko erakundeetako behatzaileei, parte hartu nahi dutenei, honako xedapen hauek aplikatuko zaizkie:

- ✓ Nazio Batuetako organismoek eskaera-orria bete beharko dute, eta behatzaile-maila emango zaie.
- ✓ FAO edo OME erakundeekin harreman ofizialak dituzten gobernu-arteko eta gobernuz kanpoko erakundeek eskaera-orria bete beharko dute, eta behatzaile-maila emango zaie.

- ✓ FAO edo OME erakundeekin harreman ofizialik ez duten gobernu-artekeo erakundeek eskaera-orria bete beharko dute. Behin beteta, *Codexaren Idazkaritzak* eta FAO eta OME erakundeen bulego juridikoek aztertuko dute. Prozesuan bestelako galderak egin ahal izango zaizkie eskatzaileei.
- ✓ FAO edo OME erakundeekin harreman ofizialik ez duten gobernu-artekeo erakundeek eskaera-orria bete eta bertan zehaztutako informazioa aurkeztu beharko dute. Antolatzaileek GKEen parte-hartzeari dagokion testua aztertu beharko du eskaera egin aurretik, egiaztatze aldera betekizunak betetzen direla. Eskaera *Codexaren Idazkaritzak*, FAO eta OME erakundeetako bulego juridikoek eta *Codex Alimentariusaren* Batzordeko Komite Exekutiboak ebaluatuko dute. Azken horrek eskaerari buruzko aholkua emango die FAO eta OME erakundeetako zuzendari nagusiei.

Publikoa, oro har

Codexaren bilkura guztiak publikoak dira, betiere erabilgarri dagoen lekuaren mugen baitan. Bilkuraren batera joan nahi duten pertsonak *Codexaren* Idazkaritzara idatzi beharko dute, gutxienez, bilkura hori egin baino hilabete lehenago.

Prozedura eta estrategiak

Prozeduren eskuliburua

Codex Alimentariusaren Batzordeak egindako Prozeduraren Eskuliburuaren helburua da estatu kideei laguntza ematea Elikadura Arauei buruzko FAO/OMEren baterako programan era eraginkorrean parte hartzeko. Eskuliburua bereziki erabilgarria da *Codexaren* bilkuretara joaten diren

herrialdeetako ordezkartzentzat eta behatzaile gisa joaten diren nazioarteko erakundeentzat.

Eskuliburuan honako hauek agertzen dira: araudia, *Codex*aren arauak eta antzeko testuak egiteko prozedura, oinarrizko definizioak eta *Codex Alimentarius*aren batzordeen funtzionamenduari dagozkion jarraibideak.

Era berean, *Codex Alimentarius*aren Batzordeko kideen zerrenda ageri da.

Arauen kudeaketa

Lan berriei ekiteko edo arauren bat berrikusteko proposamenak

- ✓ Egitekoa onetsi aurretik, lan berriei ekitea edo arauren bat berrikustea proposatu duen batzordeak edo kideak arauei edo arau-berrikusteei buruzko proiektu-dokumentua prestatu behar du.
- ✓ Batzordeak erabakitzen du lan berriren bati ekitea edo arauren bat berrikustea beharrezkoa den, eta horretarako Komite Exekutiboak egindako azterketa kritikoa hartzen du oinarriztat.
- ✓ Azterketa kritikoa.

Arauen ekoizpen-aurrerapena gainbegiratzea

- ✓ Komite Exekutiboak erkatu egiten ditu arau-proiektuen aurrerapen-egoera eta Batzordeak ezarritako egutegia. Ondoren, Batzordeari dagokion egutegia aurkezten dio.
- ✓ Komite Exekutiboak proposa dezake epea luzatzea, lana bertan behera uztea edo lana hasiera batean ardura hori hartu zuen batzordea ez den beste baten esku uztea. Halaber, organo laguntzaile berezien kopuru mugatua ezarri ahal du, hala badagokio.
- ✓ Azterketa kritikoaren prozesuak, bestalde, arauen ekoizpenak aurreikusitako egutegiarekin batera aurrera egiten duela bermatu behar du. Era berean, bermatu behar du Batzordeari aurkeztu zaizkion arau-proiektuak Komitean behar bezala aztertu direla eta egokiak direla ikuspegi teknikitik eta juridikitik.

- ✓ Gainbegiratzea beharrezkotzat jotako epeen arabera egiten da, eta arauen aplikazio-esparruari dagozkion berrikustekak Batzordeak berariaz onesten ditu.

Planifikazio estrategikoa

*Codex*aren Batzordeak kontsumitzaileen osasuna babesteko lor daitezkeen maila handienak dituen mundua nahi du, elikagaien kaltegabetasuna eta kalitatea barne. Horretarako, Batzordeak nazioartean hitzartutako arauak eta testuak egingo ditu, oinarritzat hartuta kontsumitzaileen osasuna babesteko helburuak betetzen dituzten zientzia-irizpideak. Gainera, elikagaien merkaturan praktika zintzoak hartuko dira, araudi nazionaletan eta elikagaien nazioarteko merkaturan aplikatzeko.

Codex Alimentariuserako zientzia-oinarriak

5

*Codex*aren lanerako zientzia-oinarriak arrisku-azterketaren ikuspegi orokorra ematen du, *Codex*aren baitan. Bertan, FAOko eta OMEko hiru aditu-batzorderen funtzioak deskribatzen dira: Elikagaietako Gehigarrien Adituen FAO / OME Batzorde Misto (JECFA), Plagizida Hondakinen FAO / OME Batzorde Misto (JMPR) eta Arrisku Mikrobiologikoak Ebaluatzeko Adituen FAO / OME Batzorde Misto (JEMRA).

Arriskuen azterketa-prozesua funtsezkoa da kontsumitzaileen osasuna babesteko *Codex*aren arauen zientzia-oinarrirako. Halaber, zientzia-oinarri hori dela-eta aipatzen da *Codex*ean MME (Merkataritzaren Mundu Erakundea) nazioarteko erreferentzia-puntu gisa elikaduraren segurtasunaren estandarretarako.

*Codex*aren komiteen oinarrian adituen batzordeek eta arauak egiteko *ad hoc* kontsultatu diren adituek emandako zientzia-aholkuak daude. Ulertu behar da adituen eta kontsulten batzorde horiek ez direla *Codex Alimentariuseko* Batzordeko kide: erakunde autonomoak dira, FAOk eta OMEk ezarritakoak, *Codex Alimentarius*aren Batzordeari eta bere menpeko organoei zein gobernu kideei aholkularitza berezitua emateko.